



Bertsozale Elkartearen Berripapera

	ESPAÑA
	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2018ko APIRILA - 193 zenbakia

Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren udabarriko fasea, martxan

Aurten 60 urte beteko dira lehenengo Bizkaiko Bertsolari Txapelketa jokatu zenetik eta horregatik Bilbon hasi eta bukatuko da txapelketa.

78 bertsolarik eman dute izena Bizkaiko Bertsolari Txapelketako udabarriko fasean; horietatik 23k lehenengoz kantatuko dute txapelketan. Apirilaren 14an hasi zen Bilbon, eta maiatzaren 26an amaituko da Abadiñon. Guztira 13 saio egingo dira lehenengo fase honetan, Bizkaiko 11 herritan; egun bitan, goizez eta arratsaldez jokatu dira kanporaketak, herri berean.

Udabarriko faseko sarrerak saioak jokatzeko diren egunetan bertan txarteldegian erosi ahal izango dira. 3 euro balioko du sarrerak; bazkideek 2 eurotan eskuratu ahal izango dituzte; eta 16 urtetik beherakoek, doan.

Lehenengo fasea jokotuta, udazkenekoa etorriko da. Horretan 30 bertsolarik kantatuko dute; udabarriko fasetik sailkatutakoek eta 2014ko finalista izan zirenek edukiko dute horretarako

aukera. 2016an finalista izandakoek finalurrekoetako fasean hasiko dute txapelketa.

Aurten 60 urte beteko dira 1958an jokatu zen lehenengo Bizkaiko Bertsolari Txapelketatik. Areatzan jendetza batu zen ordukoan, eta 60. urteurrena gogoan, Bilbon hasi eta Bilbon amaituko da 2018ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketa: lehenengo sailkatze saioa bertan jokatu da, baita final handia ere.

www.bertsozale.eus webgunean topa daiteke txapelketaren atari berezitua: saioak, bertsolariak, asteroko albisteak, argazkiak eta bestelakoak daude han. Gainera, sare sozialen bidez ere jarraitu ahal izango da txapelketa, elkartearen Twitter, Facebook eta Instagram kontuen bitartez. Bertsoa.eus atariak ere jarraipena egingo dio txapelketari.

Basoaren atzean, ekosistema osoa

Txapelketaren Komunikazio Taldeak garatu du aurten irudiaren ideia. Basoa izango da, kolore desberdinetakoa. Baso bat ikustean kanpokoak bakarrik ikusten dugu, baina badakigu barruan bizi handia dagoela, ekosistema oso bat.

Bertsolaritzarekin ere berdina gertatzen da. Txapelketan bertsolarien lana ikusten da, baina horren atzean ekosistema osoa dago: Bertsozale Elkarteak, bertso eskolak, hezkuntza arautuko eskolak, plazak eta abar luzea. Horrekin lotuta, txapelketaren bueltan ere jende piloak aritzen da lanean: gai jartzaileak, epaileak, komunikazio taldea, talde antolatzailea, zein bertso eskolak.



Bi hilabetez 11 herritan izango dira saioak. //XDZ



HARITZ MUJIKALASA

Azpeitia, 2018-III-16

Erriarraitz Sariketako irabazlea

Doinua: Aita izena kanta beharrak

Nahiz finaleko eguna izan ederra eta goxoa honen atzean dagoen lana ez da beti eroso zuen aldean Erriarraitzek egiten du lan osoa Tolosaldean Harituzkook emana degu pausoa eskuz esku ta eskualdeka hauspo dezagun bertsoa. (bis)

Agur esan dio denboraldiari Hitzetik Hartzera telebista programak

Iazko irailaren 24tik apirilaren 1era bitarte, 27 atal izan ditu aurtengo eskaintzak. Dagoeneko datorren denboraldiari begira jarri da lantaldea.

Ikasturte ederra izan du aurten Hitzetik Hartzera. Udazkenean Bertsolari Txapelketa Nagusiaren jarraipena egin ondoren, plazako astez asteko bertso-jardunari heldu genion abenduaren erdian. Formatu horrekin segitu dugu aurten, eta apirilaren hasieran amaiera eman denboraldiari, Nafarroako Bardoei eta Arabako Bertso Kuadrilla Artekoari eskainitako programa bereziarekin.

Denboraldi berezia izan da hau, lau urtean behin bertsolaritza astintzen duen ekimenarekin batera jarri baikinen abian: Bertsolari Txapelketa Nagusiarekin. Irailaren 24an Baigorriko saioarekin hasi eta, astez aste, txapelketako 14 saioen berri eman dugu; tartean, abenduaren 17an Barakaldoko BEC aretoan jokaturako final handiaren laburpena.

Baina txapelketez harago, plazako astez asteko jarduna da bertsolaritza hauspotzen duena, eta horren jarraipena egin dugu abenduaren erditik aurrera, programaren ohiko formatura itzulita. Behin txapelketa bukatuta formatu ezberdinetako 23 bertso-saiotako bertsoaldiak eskaini ditugu programan. Astez aste gonbidatu bat izan dugu bide-lagun, bertsolaritza eta bestelako jardueren artean dauden zubiak erakutsi asmoz: kirolariak, idazleak, zinegileak,... diziplina anitzetako 13 gonbidatu izan ditugu denboraldi honetan.

Bertsozale Elkarteko Hedapen Taldearena da Hitzetik Hartzera egiteko lanaren ardura. Gaur egun Haritz Arrizabalaga, Gaizka Azkarate, Beñat Gaztelumendi, Luis Gurrutxaga, Jexux Mari Irazu, Felix Irazustabarrena eta Eneritz Urkola ari dira horretan. Gainera, Bertsoa.eus plaza digitalean ere ari da lanean taldea.

Dagoeneko datorren denboraldiari begira jarri gara.

Hitzetik Hartzera eta Bertsoa, JarriON aplikazioan

Martxoan JarriON aplikazioa aurkeztu zuten CodeSyntax enpresak eta Gipuzkoako Diputazioak, euskarazko edukia nahieran ikusteko tresna berria. Horren bitartez bideoak telefonotik etxeko telebistara pasa ahal dira Chromecast aparagailuaren bitartez.

JarriON aplikazioan euskarazko hainbat eduki bildu dituzte eta horien artean daude Hitzetik Hartzera telebista programa eta Bertsoa.eus webguneko bideoak, hemendik aurrera etxeko telebistan errazago ikus daitezkeenak.



13 gonbidatu izan ditu Hitzetik Hartzera. //XDZ

Bide emankorra eginda, bosgarren ediziora iritsi dira Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak

Apirilaren 27an egingo dira Amasa-Villabonako Subijana etxean Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak. Aurtengoa bosgarren edizioa izango da eta tradiziozko euskal kantagintza izango du ardatz. Zehazki, Interneten kantutegi bateratu bat izatea posible ote den hausnartzea bultzatu nahi dute.

Sei hitzaldi laburrek osatuko dituzte aurtengo Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak. 10:00etan hasita eta ordu eta erdiz, tradiziozko euskal kantagintzarekin lanean diharduten eragileek eskainiko dituzte. Interesa duen oro etor daiteke, saioa irekia baita. Hileko azken ostiralean izango da, Amasa-Villabonako Subijana etxean. Ondoren, eta jada horretarako propio gonbidatutako eragileekin, tailerra egingo da.

Proiektu honen abiapuntua zein izan zen gogora ekarri digu Nere Erkiagak, Xenpelar Dokumentazio Zentroko kideak. "Dokumentazioaren inguruko gaiak lantzeko helburuarekin sortu ziren, eta bereziki Euskal Herriko dokumentazio gaien inguruko gogoetak bultzatu eta ezagutarazteko helburuarekin".

Bertsolaritzarekin lotutako gaiez harago joateko bokazioa dute jardunaldi hauek, eta horietan beste dokumentazio zerbitzuek dituzten egoerak, kezkak eta aukerak ere partekatzen dira. Hortik abiatuta antzerkiaren dokumentazioa, ipuingintza egungo argitalpenetan, tradiziozko kantagintzaren dokumentazioa eta ikus-entzunezko dokumentuak oinarri dituzten herri mailako egitasmoak izan dira orain arte landu diren gaiak.

Ikuspegi zabaltasun hori ere antolaketa mailan zaindu izan nahi dute Xenpelarren eta orain arteko jardunaldiak hainbat erakunderekin elkarlanean antolatu dituzte: Koldo Mitxelena

Liburutegia, Euskal Herriko Antzerkizale Elkarte, Tolosako Udal Liburutegia, Euskal Kantuzaleen Elkarte eta Ahotsak. Laguntzaileen artean, berriz, ALDEE, Galtzagorri Elkarte, EIZIE, Badok, eta Amasa-Villabonako Udal Liburutegia izan dira.

Esperientzia aberatsa

Horrek guztiak bost urte hauetan egin duen bideak aho-zapore gozoa utzi du Xenpelar Dokumentazio Zentroan. "Balorazio oso ona egiten dugu. Guk asko ikasi dugu bide honetan, eta parte hartu dutenengandik ere hitz onak jaso ditugu. Esperientzia eta jakintza partekatzeaz gain, alor ezberdinetako eragileen arteko elkar ezagutza bultzatzeko ere balio izan dute".

Jardunaldien bidez askotan pertsonen edo erakundeen arteko loturak eta beste egitasmoetarako aukerak sortzen dira eta Xenpelar Dokumentazio Jardunaldietan ere halaxe gertatu da. Esate baterako, lehenengo edizioaren ondorioz euskal antzerkiaren balizko dokumentazio egitasmoa definitu zuten Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteak eta Mintzola Ahozko Lantegiak elkarlanean. "Oso esperientzia aberatsa izan zen, jakintza asko bildu zen, eta orain antzerkizaleek egitasmo hori erakundeei aurkeztu eta haien babesari lortu ahal izatea espero dugu".



Alor ezberdinetako eragileen elkar ezagutzarako balio dute jardunaldiak.//XDZ



Puntu jarrita

IBAN GARRO ALZURI

Bai, Julen, bertso eskolan anaiaren lekukoa hartu nuenerako Jesukristoren adina nuen zehatz-mehatz. Hamarkada bat pasa da hartatik, eta gero eta argiago dut jesukristorena izan zela adin hura. Zergatik kostatu ote zitzaidan hainbertze pauso hura ematea?

Egin didazun galdera nik ere sarri egin izan diot nire buruari. Erantzunak ez dit buruko min handirik ematen, ordea, gauza batek bertzea ekartzen ere badakielako inolako helburu edo asmorik gabe. Eta horrela, kasualitatez agertu zitzaidan paper hura begien aitzinera, Herriko Etxeko atarian itsekita: "Helduen bertso-eskola abian". "Zergatik ez?" pentsatu, izena eman eta gaur arte. Nire momentua zen.

Egia da gazte-gaztetik zaletua izan naizela, ostatuko bertsolari ere bai, laguneren artean. Ene, potopoteo moduko haiek, Euskal Herrian horrelako zenbat! Pausoa ematea, ordea, noranzko berri bat erabakitzeke denean behintzat, ez da beti erraza izaten. Begira, bertzela, egun santu hauetan Sevilla aldera! Bertso eskolan hasi nintzelarik, besta giroko bertsoetatik kezka girokoetara pasatu nintzen, barraren bertze aldera nolabait errateko. Baina, badakizue, ate berri baten atzean lagun berriak, bizipen berriak, odol berritza finean. Bedeinkatzen dut paper hura Herri Etxeko atarian agertu zitzaidan eguna!

Baina badago nerabe garaian atzera egiten ninduen bertze kontu bat: lotsa. Lotsa kantatzeari, lotsa denen aitzinean agertzeari, lotsa mikroari, lotsa oholtzari, lotsa gaizki egiteari. Bakarra izanen ez naizenez, interesgarria iruditzen zait datozenei begira horri buruzko hausnarketa. Hau da, nola lantzen ahal diren aitzinetik eman beharreko pausoak oholtzarako ordua ahalik eta modu naturalenean ailega dadin. Ia konturatu gabe edo, ama hizkuntza ikastea bezala.

Familiakoa zaitut zu, Josu, ttikitatik bertso eskolan aritua eta egun elkarteko langile. Lehengusu lotsagabe horrek, nola oroitzen dituzu zure jendaurreko lehen bertso haiek?

Koplak

Eskolartekoak eta Bertso Eskolen Egunak

Udaberrero bezala, Eskolarteko Bat-bateko Txapelketako finalak jokatu dira Euskal Herrian barna. Lehenak, Gipuzkoa eta Nafarroako finalak izango dira, hilaren 20an jokatu dira Lasturren eta Iruñean, hurrenez hurren. Maiatzaren 6an, berriz, Bizkaiko finalaren txanda izango da, Balmasedan eta maiatzaren erdialdetik aurrera Araba eta Lapurdi-Baxenabarre-Xiberokoak izango dira. Era berean, maiatzaren 6an Bertso Eskolen Egunak ere egingo dituzte Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako elkarteek Balmasedan, Tolosan eta Leitzaan.

Poto-Finixa



Nevadako egunak

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Mundu bat ahoz aho, Bertsoan ikusgai

Apirilaren 26tik aurrera, *Mundu bat ahoz aho* dokumentala ikusteko aukera izango da Bertsoa.eus atarian. Mintzola Ahozko Lantegiak garatuta eta Lanku Kultur Zerbitzuak ekoitzia, zazpi herrialdeetako inprobisatzaileen ahotsak biltzen ditu Beñat Gaztelumendik zuzendutako dokumentalak eta kantu inprobisatuak munduari begiratzeko talaia ezagutzeko aukera eskaintzen du.

**BERTSOLARI
TXAPELKETA
NAGUSIKO
LIBURUA**

salgai!

www.lanku.eus

PUBLIZITATEA